

BAGILLAREN ERDIRANTZA

Lengo gari ta beste labore ordez, gaur belarra zaitu oi dugu; ez du onek ainbeste lan, eta zaldale edo pentsu pixkarekin miste, jateko ona dute ukulluko abelgorriak. Ortarako azkar ibilli bearra dut; udaberri euritsua baldin bada, eta ongarri pixkat neguan ezarri, gure zelai, landa ta motean arin datorkit belarra. Ortaz, udaldian iru bat epai emateko, bizkor ibiltea egoki zait.

Doiñu: «Markesaren alaba...».

Zuk, nekazari orrek,
ez al duzu oar,
ez al duzu igarri
udaren irripar?
Jo ta kea lanari
oratu bearko
bagillaren manua
bukatu orduko.

Motak ugari ditut
belar gurizkoak,
ebaki ta sapaira
eramatekoak.
Abereentzat belarra
—ezin ukatua—
galtzu ta pentsu ordez
bere bizikua.

Ona dut sail aunditan
belarra eduki,
osteango labore
batzuk baiño obeki.
Goiz oni badagiot
segea ezarri,
ondoren berriz ere
datorkit ugari.

Nik asteak dirala
ditut belar saillak
ebaki, ta, legortuz,
ornitu sabaiaik.

Orla negu aldian
belar eta pentsu
errezago bazkatzen
kortako ganadu.

Segaz epai ostean
ondo dut idortzen,
sarri iraulikatuz
xardankoz aizatzen.

Zenbait eta geiago
obeki gozatzen;
onetan ez naizu ni
sekulan aspertzen.

Iruntzak ez dezaion
gau-orduz kalterik,
illuntzez dut pillatzen
moltzoak egiñik.

Ta biaramonean
euzkia irtenez
berriro dut ipintzen
dan bezin zalalez.

Aski ondu danean
metatu sapaian,
au duzu dagidana
urtero bagillan.

Iñoiz badit euriak
landan arrapatu,
oindio zorrotzago
artzen dizut kontu.

Zillo bat ere badut
etxe saietsean,
aspalditxo egiña
uda etortzean.

Kezkarik asko dizkit
onetxek uxatzen,
aldi euritsutan
nitunak sarri len.

Goiraiño zanpaturik
belar aski artzen dit,
ta ezin obekigo
bagillez datorkit.

Ebaki ta ekarri,
ez dut lanik asko;
oraingoz ez naiz beintzat
len aiña eioko.

Nere auzoan batzuk
badira oindio
olako ez dutenak
etxean ario.

Ola dabiltz on zer dan
ez dakitelako,
baserrian nasaitu
lanari lotzeko.

EZLA R I O N A

Ongi datozkigu txakurrak etxe biran, naiz azke naiz ate ondoan kateatua. Guk bi ditugu, bata «bizkor», polizi txakurra; ta bestea, «Txiki», igaz eresia, arratoi ta saguentzat etsai ernea. Leen bazituen beste griña txar batzuk ere, gaur guztiz exita dauzkanak. Ona nola.

Doiñu: «Txakur txiki gorri bat...».